

ARLOAREN EDO IRAKASGAIAREN URTEKO PROGRAMAZIO DIDAKTIKOAREN **EGOKITZAPENA**

ADAPTACIÓN DE LA PROGRAMACIÓN DIDÁCTICA ANUAL DE CURSO

ikastetxea: <i>centro:</i>	ABADIÑO BHI	kodea: <i>código:</i>	015071
etapa: <i>etapa:</i>	DBH	zikloa/maila: <i>ciclo/nivel:</i>	1. maila
arloa/irakasgaia: <i>área / materia:</i>	EUSKARA ETA LITERATURA		
osatutako arloak/irakasgaiak <i>áreas/materias integradas</i>	Hizkuntza eta literatura komunikaziorako konpetentzia		
diziplina barruko oinarriko konpetentzia elkartuak <i>competencias disciplinares básicas asociadas</i>	Gizarterako eta herritartasunerako konpetentzia		
irakasleak: <i>profesorado:</i>	Andoni Lariz, Mirari Aguirre	ikasturtea: <i>curso:</i>	2019-20

Zeharkako konpetentziak / *Competencias transversales:*

1. Hitzez, hitzik gabe eta modu digitalean komunikatzeko konpetentzia.
2. Ikasten eta pentsatzen ikasteko konpetentzia.
3. Elkarbizitzarako konpetentzia.
4. Ekimenerako eta ekiteko espiriturako konpetentzia.
5. Izaten ikasteko konpetentzia.

helburuak <i>objetivos</i>	ebaluazio-irizpideak <i>cráterios de evaluación</i>
<p>1.-Hizkuntzaren zenbait erabilera-eremutan sortutako ahozko, idatzizko eta ikus-entzunezko diskurtsoak ulertzea eta interpretatzea, zenbait motatako komunikazio-egoerei aurre egiteko. (1,2,3)</p> <p>2.-Bai ahoz eta bai idatziz modu txukun, koherente eta zuzenean espresatzea eta interaktuatzea, eta horretan, errespetua, kooperazioa eta espiritu kritikoa hartzea oinarri,</p>	<p>1.-Ea gai den harreman interpersoneletan, hedabideetan eta hezkuntzan sarri-sarri agertu ohi direnen moduko euskarri desberdinetako ahozko testuak ulertzeko (narrazio- eta azalpen-testuak eta testu hezigarriak, nagusiki), eta horretan, ea igartzen dion testuen zentzu orokorrari, ideia nagusiak ondo bereiziz eta kasuan-kasuan lortu beharreko helburua erdiesteko informazio pertinentea hautatuz.</p>

<p>zenbait komunikazio-premiari modu eraginkorrean erantzuteko. (4,5)</p> <p>3.-Hizkuntzak diren sistemari buruz modu autonomoan gogoeta egitea, eta testuak ulertzeko eta ekoizteko prozesuan testuinguruarekin, testuarekin, esaldiarekin eta hitzarekin lotutako hizkuntzaren erabilera-arauak aplikatzea, hizkuntza modu txukun, koherente eta zuzenean erabiltzea eta transferentzia egokiak egitea helburu hartuta. (6)</p> <p>4.- Norberak hautatutako idatzizko, ahozko eta ikus-entzunezko literatura-testu erreferentziazalez gozatzea, norberaren esperientziari zentzua emateko, mundua ulertzeko eta sentsibiltate estetikoan aurrera egiteko. (11)</p> <p>5.- Literatura-generoen eta literaturaren historiako etapa eta lan nagusien oinarritzko arauak buruz ikasitakoak erabiltzea, denen artean literatura-testuak ondo ulertzeko, eta hori dela eta, literatura-ondarea esperientzia indibidual nahiz kolektiboa sinbolizatzeke eta norberaren kultura-identitatea eraikitzeke bidetzat hartzea. (7,8,10)</p> <p>6.- Oinarritzko ezaguera soziolinguistikoetan oinarrituta, gure errealtate elebiduna eta, oro har, eleaniztasuna nahiz kultura-aniztasuna ezagutzea, interpretatzea eta balioestea, eta horretan, hizkuntza- eta kultura-aniztasunaren eta euskara eguneroko bizitzan erabiltzearen aldeko jarrera linguistiko enpatiko eta asertiboak bultzatzea eta sustatzea. (12,13)</p> <p>7.-Informazioaren eta komunikazioaren teknologiak modu autonomo eta kritikoan erabiltzea, informazioa lortzeko, eta elkarrekin komunikatzeko eta kooperatzeko. (14)</p> <p>8.- Norberaren ikaskuntza-prozesuez gogoeta egitea, beste hizkuntza eta ikasgai batzuetan ikasitako komunikazio-ezaguera eta -estrategiak transferitzeko, eta norberaren ikaskuntza-gaitasunean konfiantza izatea, komunikaziorako kompetentzia hobetzeko. (15)</p>	<p>2.-.Ea gai den harreman interpersonean, hedabideetan eta hezkuntzan sarri-sarri agertu ohi direnen moduko euskarri desberdinetako idatzizko testuak ulertzeko (narrazio- eta azalpen-testuak eta testu hezigarriak, nagusiki), eta horretan, ea igartzen dion testuen zentzu orokorrari, ideia nagusiak ondo bereiziz eta informazio pertinentea hautatuz.</p> <p>3.-. Ea gai den, alde aurretik egindako plangintza bati jarraituz, hedabideetan eta hezkuntzan sarri-sarri agertu ohi direnen moduko gai akademikoei nahiz bestelako gai batzuei buruzko ahozko testu soil-soilak modu argi eta egituratuan sortzeko (narrazio- eta azalpen-testuak eta testu hezigarriak, nagusiki), eta horretan, ea txukun eta egoki erabiltzen dituen bai ikus-entzunezko teknologia berriak nahiz IKTak eta bai hitzeko nahiz hitzik gabeko baliabideak.</p> <p>4. Ea modu egoki eta aktiboan parte hartzen duen gizarte-harremanetan eta eskola-esparruan sortu ohi direnen moduko ahozko elkarrizketa eta solasaldietan, eta ea baduen besteekin batera lanean jarduteko gogo eta interesik.</p> <p>5. Ea gai den, alde aurretik egindako plangintza bati jarraituz, harreman interpersonean, hedabideetan eta hezkuntzan sarri-sarri agertu ohi direnen moduko idatzizko testuak paperean nahiz euskarri digitalean sortzeko (narrazio- eta azalpen testuak eta testu hezigarriak, nagusiki), eta horretan, ea kontuan hartzen duen kasuan kasuko komunikazio-egoera, eta ea badakien testuak modu egoki, koherente eta kohesionatuan idazten.</p> <p>6.-. Ea gai den, baten bat laguntzaile duela, testu, enuntziatu eta hitzak elkarrekin alderatu eta transformatu, eta hizkuntza-sistemari eta hizkuntzaren erabilera-arauak buruz gogoeta egiteko, eta ea gero badarabiltzan ezaguera horiek ulermen-arazoak konpontzeko eta testualizazio- eta berrikusketa-prozesuak hobetzeko.</p> <p>7.-.Ea baduen oinarritzko terminologia linguistikoaren berri, eta ea terminologia hori badarabilen testuak ulertzearekin eta sortzearekin lotutako hizkuntzaren erabilerari buruzko jardueretan.</p> <p>8.-.Ea gai den, literaturari buruzko oinarritzko bere ezaguera erabiliz, ahozko nahiz idatzizko literatura-testu laburrak irakurri, entzun eta ulertzeko, eta ea gai den testu horiei buruz bere iritzia emateko.</p>
--	--

	<p>9.-Ea baduen ahozko nahiz idatzizko literaturaren berri, eta ea ezagutzen dituen konbentzio literario espezifikoak, ezaguera horien bidez edozein motatako literatura-testuak hobeto ulertzeko eta bere kultura-ezaguerak aberasteko.</p> <p>10.- Ea badakien ahozko eta idatzizko literaturaren berri, eta ea ezagutzen dituen literaturaren konbentzio espezifikoetako batzuk, horrela literatura-testuak hobeto ulertzeko eta bere kultura-ondarea aberasteko.</p> <p>11.-Ea baduen irakurtzeko ohiturarik, eta ea literatura hartzen duen gozamen-iturritzat eta mundua ezagutzeko bidetzat.</p> <p>12.-Ea jabetzen den hizkuntza-aniztasunaz, ea balioesten duen aniztasun hori, eta ea, oinarritzko ezaguera soziolinguistikoak oinarri hartuta, baduen hizkuntzen eta hizkuntza- aniztasunaren aldeko errespeturik.</p> <p>13.- Ea ari den ohitura eta jokabide linguistiko asertibo eta enpatikoak hartzen, eta ea testuinguru eleaniztunetan euskara modu proaktibo, kooperatibo, ekitatibo eta arduratsuan erabiltzen duen</p> <p>14.- Ea, informazioa bilatzeko, hautatzeko, kudeatzeko eta komunikatzeko prozesuan, gai den informazioaren teknologiak gero eta autonomia handiagoz erabiltzeko, eskolan egunero sortzen zaizkion premiei aurre egiteko</p> <p>15.-. Ea gai den bere ikaskuntza linguistikoaz gogoeta egiteko, eta horretan, ea baduen konfiantzarik bere ikaskuntza gaitasunean, hórrela bere burua erregulatzen ikasteko.</p>
--	--

ARAZO EGOERA [Arazo egoera bakoitzaren azken ataza, arazoa eta testuinguararen daturik errelenbanteenak agertuko dira.].

SITUACIÓN PROBLEMA [Incluirá los datos relevantes del contexto, el problema y la tarea final de cada una de las situaciones.].

● **1. arazo egoera / Situación problema 1**

Gaia: Gure egunerokotasunean, euskararen erabilera bultzatzea

Maila: 1.DBH

Saioak: Ikasturte osoan zehar, asteko azken saioko lehenengo 15-20 minututan.

Proposamenaren justifikazioa:

Eskualde honetan hainbat gaztek euskararekiko duten jarrera pasiboa ikusita, komenigarria da gure hizkuntza haiei gustatzen zaizkien gai, zaletasun, eta abarretan erabil daitezkeela ohar daitezen; erakargarriak egiten zaizkien esparruetan ere euskaraz mintza daitezkeela.

Arazo-egoera:

A. Testuingurua:

Gazteen artean euskarak ez du indar handirik. Beste herri askotan bezala, gaztelania da erreferentea hainbat ikaslerentzat. Herriko biztanle askok ez dute euskararen premiarik ikusten eta naturaltasun osoz gaztelania erabiltzen dute komunikatzeko tresna bezala.

B. Arazoa:

Gazteak, nahiz eta euskara ezagutu, deseroso sentitzen dira honekin eta gaztelaniara jotzen dute beraien egunerokotasunean eta harremanetan.

C. Helburua:

Konfiantzazko giroan, lagunartean, euskara erabiltzea naturaltasunez.

Eginkizuna:

Ikasle bakoitzak, hiru hilabete behin, gai interesgarriren bat aukeratuko du (jolasak, jokoak, bideojokoak, errezetak, internet, youtube, bitxikeriak,...) eta sarrera emango dio taldekideen aurrean. Ondoren, modu informalean lagunarteko mahai inguru edo eztabaida bideratuko dugu guztien parte-hartzea bultzatuz.

Oinarrizko kompetentziak:

A. Zeharkakoak:

- Hitzez, hitzik gabe eta modu digitalean komunikatzeko kompetentzia.
- Ikasten eta pentsatzen ikasteko kompetentzia.
- Elkarbizitzarako kompetentzia.
- Ekimenerako eta ekiteko espiriturako kompetentzia.
- Izaten ikasteko kompetentzia.

B. Diziplina-kompetentziak:

- Hizkuntza eta literatura komunikaziorako kompetentzia.

Helburu didaktikoak:

- 1- Hizkuntza erabiltzeko era askotako eremuetatik jasotako diskurtso idatziak eta ahozkoak ulertzea eta ikuspegi

kritikoz interpretatzea, horietan ulertutakoa beste komunikazio-egoera batzuetan aplikatzeko.

- 2- Ahoz eta idatziz, esan-idatziak egoki, koherentziaz eta zuzen adierazteko eta solasteko gai izatea, errespetuzko eta lankidetzarako jarrera hartuz; hau da, hainbat komunikazio- egoeraren ezaugarriak eta hizkuntza arauak kontuan izan behar dira, komunikazio-premia bakoitzari eraginkortasunez erantzuteko.
- 3- Gure errealitate elebiduna ezagutzea eta interpretatzea, euskara eraginkortasunez erabiltzeko eta hizkuntza normalizazioarekiko konpromiso aktiboa garatzeko.
- 4- Hizkuntzen erabilerari buruz hausnartzea, gizarteko eta kulturako hainbat testuingurutan behar bezala komunikatzeko aukera ematen duten estrategiak hartzeko.
- 5- Testuak ulertzeko eta sortzeko prozedurak kontuan hartuz, harremanetan dauden hizkuntzen sistemei buruz hausnartzea, horietako bakoitza behar bezala, koherentziaz eta zuzen erabiltzeko eta transferentzia negatiboak saihesteko.
- 6- Informazioa bilatzean, hautatzean eta prozesatzean, gizarteko komunikazio-bideak eta informazio-teknologiak gero eta autonomia handiagoz eta espiritu kritikoz erabiltzea, eskola-jardueran hizkuntza mintzatua eta idatzia eraginkortasunez erabiltzeko.

Edukiak:

- Mintzagaia hautatu. Jolasak, jokoak, bideojokoak, kirolak, internet, youtube, bitxikeriak,...
- Informazio iturri desberdinetatik ateratako informazioa sailkatu.
- Mahai inguruan eta eztabaidetan aktiboki parte hartu.

Jardueren sekuentzia:

A. Hasierako fasea:

Ikasleei gustukoa duten edozein gai buruz mahai ingurua egingo dugula azaltzen zaie. Horretarako, hasiera batean, haiek dituzten zaletasunei buruz hitz egingo dugu; kirol mota, bideojokoak, jolasak, internet,... edozer. Nahi duen guztiak hitz egin ahal izango du. Honekin ikasle bakoitzari aurrerago garatuko duen gaia aukeratzeko erraztasuna edo bidea eman nahi zaio.

Ondoren, ikasle bakoitzari hiru hilabeteko data bat emango zaio. Egun horretarako ikasleak gai bat aukeratuta izango du eta gai horri, aurkezpen modura, 3-4 minutuko sarrera emango dio; zer den, nolakoa den, zergatik aukeratu duen, bilakaera, bere esperientzia,... Hau guztia aldeztu aurretik etxean prestatuta izango du.

B. Garapenaren fasea:

Esan bezala, ikasleak gaiari sarrera emango dio, 3-4 minututan, taldekideen aurrean. Honetan, ikasleak gelako IKT-ak erabiltzeko aukera izango du (arbel digitala,...). Hau asteko azken saioan izango da.

Ikasleak bere sarrera edo aurkezpena bukatu ondoren, beste ikasleek galderak egin ahal izango dizkiote eskua altxatuz (izan ditzaketen zalantzak,...). Ikasleak, ahal duen heinean, galderari erantzuna emango die.

C. Aplikazio eta komunikazioaren fasea:

Jarraian, egon daitezkeen galderak erantzun ondoren, eztabaidari edo mahai inguruari hasiera emango zaio eta orduan guztiak hartu ahal izango dute parte txanda eskatuz. Irakaslea mahai ingurua bideratzen saiatuko da eta guztien parte hartzea bultzatuko du. Kasu honetan, eztabaidak indarra gal ez dezan, dinamizatzaile funtzioa beteko du irakasleak.

D. Orokortzea eta transferentzia:

Hiru hilabeteko hurrengo saioetan, "protagonista" izan den ikasleak bere taldekide edo mintzakideek izan duten funtzioa beteko du, beste batek egindako aurkezpena entzunez eta ondorengo mahai inguruan aktiboki parte hartuz.

Ebaluazioa

A. Adierazleak:

- a) IKT-ak edo beste informazio iturri batzuk modu eraginkorren erabiltzen ditu.
- b) Bildutako informazioa modu egokian sailkatzen du.
- c) Eztabaida edo mahai inguruan aktiboki parte hartzen du.
- d) Besteen iritzia errespetuz hartzen ditu eta bere iritzia txanda errespetatuz eta modu koherentean ematen du.

B. Tresnak:

Bildutako informazioa eta gidoia.

IKT-ak (arbel digitala, ordenagailua,...).

EDUKIEN SEKUENTZIA [denbora-tarteka, unitate didaktikoak, proiektuka, ikaskuntza-nukleoka edo beste moduren batera antolatuta...].

SECUENCIACIÓN DE CONTENIDOS [organización en períodos, unidades didácticas, proyectos, núcleos de aprendizaje...].

1. Ebaluazioa

1. Unitatea: Arriskua gozabide

- Entzumenak: Abenturaren prezioa, Xakea kirola da, Patinajearen sekretuak
- Irakurmena: Non gogoan hangoa
- Hizkuntzaren erabilera: Perpausa eta haren osagaiak, Izen-sintagma
- Literatura: Poema jostalariak I

2. Unitatea: Hori Donna eta!

- Entzumenak: Poparen erregina, Musika eta letra, Venezuelako orkestra gaztea.
- Irakurmena: Inperio indiarra
- Hizkuntzaren erabilera: Aditz sintagma, Deklinabidea
- Literatura: Poema jostalariak II

3. Unitatea: Jeans-ak beti modan?

- Entzumenak: galtzak bete historia, Modako blogger euskalduna, Nire arropa nire txapela.
- Irakurmena: Gona denontzat
- Hizkuntzaren erabilera: Deklinabidea: kasu gramatikalak, Aditz laguntzaileak: Izan eta ukan
- Literatura: Kopla zaharrak

4. Unitatea: Letrak ala zenbakiak?

- Entzumenak: Erromatar zenbakera, Amaren libuurtegia, Literaturaren bitxikeriak
- Irakurmena: Codex Gigas
- Hizkuntzaren erabilera: Deklinabidea. Leku eta denbora kasuak, Aditza: aditz trinkoak
- Literatura: Erromantzeak

2. Ebaluazioa

5. Unitatea: Digitalaren on-gaitzak

- Entzumenak: Gaitz digitalak, tabletak mugikorrek eta nerabeak, 3Dko inprimaketa
- Irakurmena: Jantzita eramteko informatika
- Hizkuntzaren erabilera: deklinabidea: gainerako kasuak, aditza: aspektua
- Literatura: Bat-baeko bertsojaritza

6. Unitatea: Ausardia ala izerdia?

- Entzumenak: Barry barrez, Kameratoia, filmak eta jatekoa
- Irakurmena: Gose jokoak errealitatearen kritika, fikzioan ezkutatuta
- Hizkuntzaren erabilera: deklinabidea: mugagabea, Perpaus motak
- Literatura: Bertso jarriak

3. Ebaluazioa EGOKITZAPENA

Egungo egoera dela eta, ebaluazioaren gutxieneko helburuak eta edukiak moldatu ditugu eta horrelaxe landuko dira:

- Ikasturtea bukatu arte, 7, 8 eta 9, unitateekin jarraituko dugu lanean online saioetan (dena gaindituta dutenekin izango da. Berreskuratzeko dauden ikasleekin jarraituko den prozedura, beheko oharretan adierazi dugu).
- Aurreko ebaluazioaren bat gainditu gabe duten ikasleekin, berreskuratzeko aukera izan dezaten, birpasorako fitxak egingo dituzte.
- Udako txostena eta iraileko errepassoa 3. ebaluazio hau sendotzeko izango da. Gainera, hizkuntzetan ikasturte guztia biltzen du azken ebaluazio honek.

EDUKIEN SEKUENTZIA

7. Unitatea: Misil guztien gainetik

- Irakurmena: Ekialdetik iritsi zen Enara
- Hizkuntzaren erabilera: Perpausa: Baldintza, Aditza. Baldintza hipotetikoa
- Literatura: Olerkigintza I

8. Unitatea: hego poloa helburu

- Entzumenak: Natura garaile, Maria euskara bere kabuz ikasi duen greziara, katalan bat Izurtzan
- Irakurmena: Amelia Eahart-en azken hegladia: argitu gabeko misterioa
- Hizkuntzaren erabilera: Perpausa: erlatiboa, Aditza: Nor-Nork aditz laguntzaileak
- Literatura: Olerkigintza II
- Ahozkotatasuna: Proiektu baten bidez landuko genuke ahozkotatasuna.

9. Unitatea: Etorkizuneko janaria

- Entzumenak: Joylent, Zuberoako Arbailarren elikabidea, Janari estratosferikoa
- Irakurmena: Zergatik jaten dute zotzekin Asian?

- Hizkuntzaren erabilera: konparazio perpausak, Aditza: Nor-Nori aditz laguntzaileak
- Literatura: Antzerkia

UDAKO TXOSTENA ETA IRAILA

Udako txostenean (kurtso guztia) berrikusteko eta sakontzeko ariketak landuko dira.

IRAKURMENAREN ULERMENA

GRAMATIKA

IDAZMENA

LEXIKOA ETA ORTOGRAFIA

Irailean udako lanaren zuzenketa eta Hasierako Ebaluazioa landuko dira.

BALIABIDE DIDAKTIKOAK EGOKITZAPENA

Klaseak Classroom bitartez ematen ditugu.Lanak hor partekatzen ditugu ikasleekin.
Bideo- konferentziak egiteko, Google meet edo jit.si baliabideak erabiltzen ari gara.

Udako txostena Classroometik bidaliko dugu. Beraiek orain arte bezala, Drive dokumentu batean egingo dituzte lanak.

Eskolako ikasle guztiek dute aukera online lana egiteko. Arazoren bat egonez gero aurrerago fotokopiak bidaliko dizkiegu

BESTE BALIABIDE BATZUK/OTROS RECURSOS

- Testu liburua: ERAGIN. Euskara eta Literatura DBH3, Santillana Zubia. Egiten jakin proiektua. (Gramatika, Literatura, Ortografia eta Ulermena)
- Irakasleak sortutako materialak
- Irakur liburuak

Jara – Jasone Osoro

Bihotz ausarta – Joanes Urkixo

Ezekiel – Jasone Osoro

Kittano – Joxantonio Ormazabal

- IKT baliabideak:

-Web guneak:

: www.euskaljakintza.net,

www.euskaltzaindia.net,

www.bizkaie.com,

www.habe.org,

www.bertsolari.com

, www.euskadi.net,

www.hiztegia.net,

www.ikasbil.com

, www.youtube,

www.musikazblai.com

OHARRAK

1go eta 2. ebaluazioko helburu eta edukiak hartuko dira kontuan ikasturtea gainditzeko, Beraz, hauxe izango da ikasleentzako berreskurapen sistema

Liburutik, maila bakoitzean 2. Ebaluazioraino finkatuta geneuzkan helburuak izango dira, gai horien errepasso ariketak, hemendik eta kurtso amaierara egiteko.

- GRAMATIKA FITXAK (1,2,3,4,5,6 UNITATEAK)
- IRAKURKETAREN ULERMENA LANTZEKO ARIKETAK
- IDAZLANTXO LABURRAK
- GAITASUNAK LANTZEKO TXOSTENA

Ohiko deialdian gaindituko ez balute, ez ohiko deialdian aukera izango dute gainditzeko.

EBALUAZIO-TRESNAK EGOKITZAPENA	KALIFIKAZIO-IRIZPIDEAK EGOKITZAPENA
<ul style="list-style-type: none">● Klasean konektatzea● Testu liburuaren ariketak eta Classroometik bidalitako lanen kontrola● Gaiarekin lotutako idazlanak● Unitate bakoitzeko online froga <p>Irailaren bukaerako froga (hasierako ebaluazioa)</p>	<ul style="list-style-type: none">● 1go eta 2. ebaluazioko notak izango du pisu gehien.● 3. ebaluazioko lanak (konektatzea, lanak egitea, epean entregatzea, kalitatea...) eta frogak ondo lantzeak batz-besteke nota hori puntu batean igotzeko balioko du.● Hala ere, 1go eta 2. ebaluazioko notan eragina izan dezake ere, 3. ebaluazioan lan gutxi egiteak, klaseetara ez konektatzeak... justifikazio gabe. Honek <u>puntu bat jeistea</u> ahalbideratuko du (bost batetik jeisten ez den heinean). <p>Berreskurapenak gainditzen duten ikasleek 5 kalifikazioa izango dute.</p>